

NORTEKO TRENBIDEARI

[Jose Manuel Lujanbio “Txirrita”](#)

(Ereñotzu, Hernani, Gipuzkoa, 1860 - Altza, Gipuzkoa, 1936)

1/ Nafarroatik ardo-garraio [itzain](#) asko zen ikusi, / frankok bazeuzkan idi koskorak beren koilare eta guzi; / zurezko ardatzak [lumerarekin](#) ahal zen maizena igurtzi; / denbora hartan Pantorrill zuten karreteroek nagusi.

2/ Garai hartako itzain koskorak ongi zebiltzan lanean, / Gipuzkoan eta Bizkai aldean eta Euskal Herri denean, / gorputzak bapo gobernatuz edanean eta janean; / akabo horien jornal-bidea trena etorri zenean.

3/ Aritu zituztenean trenen txistua eta marruak, / gehientxoek saldu zituzten idiak eta karroak, / esanez: “Horrek jaitsiko dizkik goi horietan diren ardoak”. / Garai hartako haien abarkak ziren basurde-larruak.

4/ Mila zortziehun hirurogeita zazpigarrenko urtean, / lehenengo trena ikusi nuen Espainiako partean, / bide pixka bat bistan pasata inoiz sartua lurpean; / [ferra](#) berriak erantsi dizkiote handik orain artean.

5/ Modu horretan jarri zuenak Norteko ferrokarrila, / jakinduria handia zuen, entendimentu abila; / gizonik ezin hasi liteke zaldi hobearen bila: / goizean irten Irundik eta iluntzerako Madrila.

6/ Denok elkarri lagun diezaiogun ilundu gabe kopetarik, / indar handian doala ere gelditzen da kolpetik; / inor ezertaz behartzen bada Donostiara Madrildik, / izugarritzko adelantua jarria dago Nortetik.

7/ Linea horrek badauka zenbait tunel, zubi eta errio, / bi biderekin ipini dute sekulan baino berriago, / elektrikako indarra eta hainbeste guardarraio; / gau eta egun gelditu gabe beti zerbaiten garraio.

8/ Trenera lasai balihoake eginagatik zahartzera, / igo-bideak ederrak dauzka, kotxean aise sartzeko da; / hamar legoa bide pasata ordu beterako etxera, / lehenengo segundak bezain ederra dago oraingo terzera.

9/ Eseri-aulki ederrak eta beste gauza bat on-ona: / ezertarako behartzen bada kotxe bakoitzak komuna; / lehenengoan hantxe ikusi nuen laurogei urteko amona, / frantses euskaldun buru-zuri bat, Bentaberriko Moñoña.

10/ Karbonerarik ez dute behar, fogonerorik hain gutxi; / hor behar dena: begiak ernai eta llabeari eutsi; / abiatzean ireki eta ailegatzean itxi, / gau eta egun gelditu gabe dabil txistu eta irrintzi.

11/ Gizon abila zen elektrika sortu zuen maisu hori, / pixka-pixka bat hark graduak bajatu zizkion suari; / orain indarra leku askotan kentzen zaio urari, / garai batean merke zen baina gaur balio du ugari.

12/ Honela esanez ur irakinak egiten zuen negarra: / “Prezisoa al da beti kalderan kiskaltzen egon beharra? / Ez daukat beste alimenturik: sua, kea eta txingarra; / ongi miatzen baldin banauzu hotzean badut indarra”.

13/ Berari begira jarri zitzaion zabaldurik besoak, / arrazoi hori ontzat hartu du elektrikako maisuak: / “Badakit zure gau eta egunak direla lastimosoak, / hori egia esan baduzu itzaliko dira suak”.

14/ Nire munduko jakinduria izan da oso azala, / Jaungoikoari eskatzen diot arren argitu nazala; / garai batean ez genekien elektririk bazela, / orain ur hotzak dabilki trena lehen irakinak bezala.

ZAVALA, Antonio (1992). [*Txirrita. Jose Manuel Lujanbio Reteqi \(1860-1936\). Bizitza eta bertsoak.*](#) Sendoa liburutegia. Donostia: Auspoaren Sail Nagusia. (468-469).